

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2018-2019 ikasturtea

ESKOLAREN ERRONKAK GAUR EGUN:

FAMILIA ANIZTASUNAREN LANKETA

ESKOLA INKLUSIBORAKO BIDEAN.

Egilea: Nerea Godoy Fuentes

Zuzendaria: Karmele Artetxe Sanchez

Leioan, 2019ko maiatzaren 29an

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. Marko teoriko eta kontzeptuala	3
1.1 Eskola eta familia: eginkizun partekatuak	3
1.2 Gizartearen bilakaerak familiarengan izandako eragina	5
1.3 Familia-ereduen aniztasuna	6
1.4 Eskola inklusiboa	8
2. Helburuak	9
3. Metodologia	10
4. Haur Hezkuntzako ikasmaterialen familia-eredu eta genero-rolen azterketaren emaitza	13
4.1 Irudi/argazki eta bertako familia-ereduak	13
4.2 Sexu eta adinaren araberako ekintzak eta maiztasuna	14
4.3 Azterketaren ondorio nagusiak	17
4.4 Haur Hezkuntzan familia-aniztasuna lantzeko gida	19
5. Ondorioak	20
6. Erreferentzia bibliografikoak	22
ERANSKINAK	24
1. eranskina: Urtxintxaren liburuxketako pertsonaien, ekintzen eta itxura fisikoaren azterketaren emaitzen taulak	25
2. eranskina: Familia-ereduen lanketarako gida	34

ESKOLAREN ERRONKAK GAUR EGUN

Familia aniztasunaren lanketa eskola inklusiborako bidean.

Nerea Godoy Fuentes

UPV/EHU

Eskolaren erronketako bat familia-aniztasuna da, familia nuklearrez gain beste askok ere osatzen baitute eskola. Egindako ikerketa honen helburua, familia-aniztasunari eskolan ematen zaion lanketa ikustea da, horretarako, Euskal Herrian gehien erabiltzen den Urtxintxa argitaletxeko 4 urteko haurrei zuzendutako ikasmateriala aztertu da, hau da, irudietan agertzen diren haur, heldu eta adinekoen rola eta zer nolako familiak osatzen dituzten ikertu da. Familia gai bezala jorratzen ez dela ikusita eta curriculum ezkutuan lantzen diren irudien emaitzak ikusita, aniztasuna lantzeko eta ikusgai egiteko eskolarako material desberdinak bildu eta gida bat sortu dugu. Eskola inklusiboa lortzeko, behar-beharrezkoa baita arlo guztietan bazterketarik ez ematea.

Eskola, familia aniztasun, eskola inklusiboa, Urtxintxa.

Uno de los retos de la escuela es la diversidad familiar, puesto que además de la familia nuclear muchas otras también forman la escuela. El objetivo de esta investigación es ver qué tratamiento se le da a la diversidad familiar y para ello, se ha investigado el material de aprendizaje dirigido a niños y niñas de 4 años de la editorial Urtxintxa, la más utilizada en Euskal Herria. Se han investigado los roles de niños/as, adultos/as y ancianos/as y qué tipo de familias forman. Visto que la familia no se trabaja como tema y los resultados del curriculum oculto mediante las imágenes, se ha creado una guía que reúne diferentes materiales para trabajar y hacer visible la diversidad. Para conseguir la escuela inclusiva, es realmente necesario que no se den marginaciones en ningún ámbito.

Escuela, diversidad familiar, escuela inclusiva, Urtxintxa.

Un des défis de l'école est la diversité des types familles. A l'école on rencontre plus souvent des familles hétérosexuelles. Le but de cette recherche c'est voir quelle traitement on offre à la diversité familiale. C'est pour cela que nous avons fait une enquête sur le matériel didactique employé auprès des enfants de 4 ans de l'éditeur Urtxintxa. C'est le plus utilisé au Pays Basque. Nous avons réalisé une enquête sur les rôles des enfants, des parents et des grands parents pour comprendre à quel type de familles ils appartiennent. Vu que le thème de la famille ne se travaille pas comme unité dans les manuels scolaire ainsi que les interprétations du curriculum caché à travers les images, il a été nécessaire de créer un guide. Pour obtenir une école inclusive, il est très important de tout faire pour ne marginaliser personne.

École, diversité familial, école inclusive, Urtxintxa.

Sarrera

Gaur egungo gizartea arlo askotan da anitza, jatorri, gaitasun, maila-ekonomiko, kultura eta abar ezberdinetako pertsonak elkarrekin bizi gara. Eskolak, gizartearen isla izan behar du eta etengabe aldatzen ari denez, etengabe aldaketak egin. Hezkuntza zentro publiko zein pribatuetan, ez dira bi ume berdin aurkituko, baina bada zerbait haur guztiek amankomunean dutena: familia.

Baina familia hitzak oso definizio zabala du, autore askok bakoitzak bere garaiari egokitutako azalpena eman dio eta etorkizunean, familiek aldatzen jarraituko dute. Familia nuklearra da gure gizarteak normalizatzen duen bakarra, iragarki guztietan ez bada, gehienetan ama bat, aita bat eta seme eta alaba bana ikusiko ditugu, normalean azal zurikoak eta ilehoriak. Baina, hori al da gure gizartearen isla? Eta eskolako materialean iragarkietako irudi berak agertzen al dira? Edo familia-eredu desberdinak ageri dira?

Txosten honetan Urtxintxa argitaletxeko 4 urteko haurren ikasmateriala aztertu da, emakume zein gizonen (haurtzaroan, helduaroan eta zahartzaroan) rola eta zer nolako familiak osatzen dituzten ikertuz. Eraitza kezkarriak, baina batez ere ez-errealistak ikusita, familia-eredu desberdinak ekitatez eta aniztasunez lantzeko gida bat garatu da. Haurrak txikitatik tolerantzia eta inklusioan hezteko.

1. Marko teorikoa eta kontzeptuala

1.1 Eskola eta familia: eginkizun partekatua

Eskola hitza maiz erabiltzen dugun arren, erakunde konplexua da, historian zehar eraldaketa prozesu handiak jasan dituen, eta beraz, zaila da arin eta labur zehaztea zein den bere funtzioa gizartean. Garai historikoaren, espazioaren eta testuinguru pedagogikoaren arabera aldatu egiten baita. Gaur egun mendebaldeko European Billard-ek (2002) dionari jarraituz, eskolaren helburuak bi hauek dira: haurra kulturen eta gizarte zibilean murgiltzea ziurtatzea, hain zuzen ere. Horrekin batera, azpimarratzen du eskolak beste hainbat funtzio edo betebeharrak garrantzitsu esleituta dituen arren, ez direla ezinbestekoak, baina zilegia dela horiek eskolari ezartzea.

La escuela, como organización que es, concretiza a nivel singular las normas y los valores vigentes en nuestra cultura, siendo a su vez una organización transmisora de ellos. Es en ella como principal lugar donde el niño se inicia en la vida social, fuera de núcleo familiar, donde este va a conocer, aprender y desarrollar unos valores, los que vive y transmite en su escuela. Es en ella donde se va a ir creando el tipo de sociedad imperante, ya que es la responsable (en cierta medida) de construir la forma de ser y vivir del ciudadano. (Lopez eta Macías, data barik, 2.orr)

En la actualidad, familia y escuela se hallan en un periodo nuevo de su historia, caracterizado por cambios profundos y acelerados, que no se deben al azar. Tradicionalmente a la familia y a la escuela se les ha asignado la función de ser transmisoras de los conocimientos que los individuos jóvenes necesitan para la vida futura, así como de la socialización en las normas y valores (Lopez, T. 2004, 39.orr.).

Luz Ofelia Escobarri (2011) jarraituz, belaunaldi berriek eskolaren bidez, gizarteak eskatutako betebeharrak betetzea ahalbidetzen da, gizartera protagonista bezala sartzeko eta bai norberaren bai besteen errealitatea eraldatzeko gai izateko. Baita behar ezberdinei erantzuteko ere, haiengan, gazteengan, familian eta gizartean ematen diren aldaketei erantzuteko.

Hortaz, eskolaren *erronkak* eta funtzioak bat datozela esan daiteke, izan ere, eskolak gizartean ematen diren aldaketei erantzuna ematea da helburuetako bat, bere horretan erronka handia ere badena. Era berean, haurren hezkuntza ez da eskolari soilik dagokion eginkizuna, familia eta eskolaren arteko elkarlanaren ondorioa baizik.

Los padres solos no pueden educar a sus hijos, porque no pueden protegerlos de otras influencias muy poderosas. Los docentes solos no pueden educar a sus alumnos, por la misma razón. La sociedad tampoco puede educar a sus ciudadanos, sin la ayuda de los padres y del sistema educativo. (...) Si queremos educar bien a nuestra infancia, es decir, educarla para la felicidad y la dignidad, es imprescindible una movilización educativa de la sociedad civil, que retome el espíritu del viejo proverbio africano: "Para educar a un niño hace falta la tribu entera" (Marina aipatua in Torio 2004, 35-36.orr)

Hainbat metodologia berritzailek, Brea-k (2008) ikas-komunitateei buruzko artikuluan aipatzen duen bezala, gurasoen eta herriko eragile desberdinen parte-hartzea bultzatzen dute. Herri txikietako eskola txikietan, nahitaezkoa da familia eta eskola harremanetan egotea, azken finean denek ezagutzen baitute elkar. Baina herri handiagoetara zein hirietara joz gero, egoera zaildu egiten da.

Aguadok (2010), eskola eta familien arteko elkarlan eza edo urria ikusita, hainbat neurri proposatzen du bien arteko elkarlana sustatzeko:

- La escuela actual va abriendo los ojos a la diversidad familiar, conforme se le presentan problemas y necesidades puntuales (...).
- Es imprescindible que el profesorado, sobre todo el tutor, conozca cual es el funcionamiento de la familia para poder entender la situación del niño, poder ayudarle y, si fuera necesario, demandar las ayudas o los apoyos precisos (...).
- Potenciar la colaboración escuela - familia, a través de distintas acciones: a) Intercambiar información sobre lo que ocurre en casa y en la escuela, sobre todo en los momentos de cambio y en los de crisis, b) Comprensión mutua respecto a las dificultades de la labor educativa que cada agente lleva a cabo. La relación ha de estar basada en la comunicación, la confianza y el reconocimiento mutuos, c) Marcarse objetivos y estrategias comunes, delimitando bien el campo de actuación de cada uno, d) Facilitar el acceso a los recursos educativos especializados si fuera necesario.
- Profundizar en los contenidos relacionados con la diversidad familiar, mediante unidades didácticas de la programación y también de forma transversal (...).
- Crear materiales diversos que permitan abordar el tema desde perspectivas teóricas, hasta otras más lúdicas: libros de texto, cuentos, películas, canciones, juguetes, etc. (...).
- Poner en práctica distintas metodologías y didácticas que permitan abordar el tema de forma rica y diversa (...).
- Fomentar la sensibilización, la reflexión y el debate sobre el tema a través de las Escuelas de Padres, la labor tutorial y la orientación escolar (...).
- El maestro no puede estar solo ante esta tarea y necesita apoyos del entorno escolar próximo, de las administraciones educativas y de otros organismos sociales y educativos que, en la medida de lo posible pudieran trabajar en red (...). (Aguado, 2010, 6-8 orr.)

1.2 Gizartearen bilakaerak familiarengan izandako eragina

Familiaren egitura asko aldatu da azken urteotan. Lehen ezkontza bidezko familia zabala nagusi bazen ere, gaur egun, kontzeptuaren muinean pertsona elkarketa legoke, ezkontza bidezkoa edo ez. Aguadok (2010), Palacios eta Rodrigori (1988) jarraituz zera dio, pertsona horiek elkarrekiko bizitza proiektu iraunkorra izatea nahi dutela; kideetasun-sentimendu sendoak sortzen direla eta kideen arteko konpromiso-pertsonala dagoela eta, intimitate, elkarrekikotasun-eta menpekotasun-harreman estuak sortzen direla.

Aldaketa hauek, Castro eta Seiz (2014) autoreen arabera ikuspegi historikoetatik hainbat faktorek eragindakoak izan dira. Ezkontzeko bataz besteko adina 8 urte igo zen 1980 eta 2012 bitartean, dibortzio kopurua bikoiztu egin zen 2000.urtetik 2012ra eta gaur egun, 5 ezkontzatik 1 (% 22) bigarren ezkontza dira. Bestalde, emakumea lan munduan sartzearekin batera, etxeko

arduren banaketa desorekatua nabaria izan zen, 2011ko erroldaren arabera, bi bikotekideak lanean eta gizona bakarrik lan egiten zuen familien ehunekoa % 43,6 eta % 27,8koa izan zen, hurrenez hurren. Hortaz, emakumeak familian eta lan munduan izugarrizko eraldaketa pairatu du.

80ko hamarkadarekin batera, aurretik aipatutako aldaketa guztiek eragina izan zuten sexu, ezkontza eta ugalketa arloan, ondorio bezala eraldaketa sozioekonomiko, instituzional, ekonomiko, ideologiko eta batez ere genero erlazioen rolen eraldaketa eragin zutenak.. Hortaz, ez zen bakarrik familiaren osaketa bakarrik aldatu, barne-antolakuntza ere nabarmen aldatu zen, izan ere, emakumeari haurrak zaintzeko eta etxea garbitzeko rola zegokion bitartean, gizonak etxetik kanpo lan egin eta etxera dirua ekartzea zuen bere betebeharra.

1.3 Familia-ereduen aniztasuna

Familien tipologia asko egin daitezke, autore batzuk 56 familia mota baino gehiago katalogatu izan dituzte (Bilbao, 2008). Eustat-ek 2016an bildutako datuetan 7 familia-eredu baino ez zituen bereizi.

	Guztira	Ezkontzabetea	Ezkontzatu edo bizirikidea	Alarguna	Dibortziatua	Legez banandua
Euskal AE	892,1	160,4	518,8	149,7	50,1	13,1
Pertsona bakarrekoa	245,0	123,0	8,3	84,1	22,8	6,7
Konposatua	26,4	17,8	1,2	5,0	2,0	0,4
Gunea seme-alabarik gabe	187,3	0,7	184,4	0,7	1,4	0,1
Gunea seme-alabekin	300,2	0,6	297,5	0,0	1,7	0,4
Guraso bakarrekoa	82,0	11,6	5,6	40,8	19,1	4,9
Handitua	38,9	6,1	12,3	17,1	2,8	0,6
Gune askotarikoa	12,3	0,5	9,5	1,9	0,3	0,0

1.taula: 2016ko EAEko inkesta demografikoa (milakotan). Iturria: Eustat.

Ikus daitekeen bezala, eta seme-alabarik ez duten familiak alde batera uzten baditugu, baita pertsona bakarrekoak ere, honako hauek dira eskolan nabarmentzen diren eredu nagusiak: familia nuklearra, homosexuala, guraso bakarrekoa, guraso bananduena, kide transexual batez osaturikoa, harrera-familia eta adopzio-familia.

Zehatzago azaltzeko, aipatutako familia-ereduak definituko dira. Familia nuklearra gizonezko eta emakumezko batek eta haien seme alabek osatzen dutena da. Familia homosexuala bi gizonezkoek zein bi emakumezkoek eta haien seme-alabek osatzen dute. Guraso bakarreko familiak, emakume edo gizon bakarrak eta bere seme-alabek osatzen dute. Guraso bananduen familia, familia nuklear zein homosexual baten apurketa da, hots, lehen bikoteak eta haien hurrek osatutako familiako bi helduak (legez edo ez) banatu eta bikote gisa ez jarraitzea. Kide transexual batez osaturiko familia azken bi urteetan oihartzuna izan duen familia-eredu "berria" da, norbere genitalei esleitutako generoarekin bat ez datorren kide batek (edo gehiagok) osatzen dutena. Harrera-familia, haur bati (edo gehiagori) denbora mugatu batez esleitzen zaion familia da, arrazoi ezberdinengatik beren familia biologikoekin bizi ezin duten hurrei zuzendua. Azkenik, adopzio-familia beste familia batean jaiotako haurrak norbere familiako kide bihurtzea da, legez hurren tutoretza hartzea, alegia. Aipatzekoa da bai harrera- bai adopzio-familiek, haien seme-alaba biologikoak ere izan ditzaketela.

Kontuan hartzekoa datu garrantzitsua da, zehaztutako ereduaren artean nahasketak egon daitezkeela, hau azaltzeko modurik aproposena hurrengo adibidea izanik. Demagun familia zabal batez hitz egiten ari garela, non aiton-amonak, gurasoak eta seme-alabak elkarrekin bizi diren, aiton-amonak familia nuklearra osatzen duten bitartean, gurasoak homosexualak izan daitezke eta haurrak, harreran hartutakoak. Honek esan nahi du, familiek ez dutela zertan etiketa bakarra izan, aldi berean bi multzotan egon daitezkeela, alegia. Bestalde, aipatzekoa da ez dagoela familia-eredu hauen kopurua edo portzentaia biltzen duen ikerketarik.

Nahiz eta garai batean "ohiko" bezala hartzen zen familia-nuklearra, *familia-eredu* horretatik at geratzen ziren guztiak ezkutatzen ziren, gizarteak onartzen ez zuen rolen banaketa zela eta. Pixkanaka gertatzen diren aldaketa

sozial, kultural eta ideologikoei esker, onartzen hasi ziren familia-eredu berriak. Erronka honi eskola inklusiboaren bitartez erantzun beharko lioke gure hezkuntza-sistemak.

1.4 Eskola inklusiboa

Pastor, Fundación San Juan de Dios ospitaleko talde pedagogikoa eta Rodriguezek (2007) argitaratutako *Educación Inclusiva* gidan honela definitzen dute hezkuntza inklusiboa: komunitate jakin bateko gazte eta heldu guztiek, haien jatorria, baldintza pertsonalak, sozialak edo kulturalak edozein direla ere, baita ikasketan zailtasunak edo desgaitasunak agertzen dituzten haiek ere elkarrekin ikastea datza. Inongo hautaketa edo bazterkeria mekanismorik gabeko eskola da, hezkuntza jasotzeko, partehartzeko eta aukera berdintasuneko eskubideak benetan eraginkorrak egiteko. Eskola inklusiboan ikasle guztiek haien beharrei egokitutako irakaskuntzaz gozaten dute eta ez bakarrik behar bereziak dituztenek. Hezkuntza inklusiboa hezkuntza pertsonalizatu gisa ulertzen da, adin bereko haur orori neurritz diseinatutakoa, beharrezan, gaitasun eta konpetentzia maila anitzekin. Ikasle bakoitzari, behar duen neurrian, ohiko gelan laguntza ematean oinarritzen da. Denok antzekoak izan gaitzkelakoan, baina ez berberak eta horrekin batera bakoitzaren betebeharrek ikuspuntu plural eta anitz batetik kontuan hartuak izan behar dute.

Aguadok (2010) dio: familia aniztasunik gabe, ez da eskola inklusiborik. Eskola inklusiboa, eskolaren eta familiaren arteko elkarlanean eraikitzen dena, familia-eredu guztiak kontuan hartu eta erantzun bat emango diena baino ez da izango. Eskolak egoera honen aurrean ez du entzungor egin behar, inklusio jarduera bat egin eta gizartearen ispilu eta leiho bezala jokatu beharko du (Lopez, Diez, Morgado eta Gonzalez, 2008). Ispilu izan beharko du haur guztiak identifikatuta senti daitezen baita leiho ere, beste errealitate eta aukera batzuk ezagut ditzaten. Betebehar bikoitz hau egiteko beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dira eskolan, ondoren azaldutakoak, besteak beste:

- Revisemos la decoración del centro educativo (...).
- Conozcamos la realidad familiares del centro y tengámosla en cuenta (...).
- El profesorado debe revisar sus ideas de partida con respecto a la diversidad familiar (...).

- Asimismo, sería recomendable revisar el tratamiento educativo de ciertos contenidos relacionados con las familias, que pueden hacer que determinadas familias no se sientan incluidas o representadas (...).
- También se debe mostrar una especial sensibilidad en las interacciones cotidianas dentro y fuera del aula (...).
- En cuanto a los libros de texto y otros materiales escolares, urge su revisión para que en ellos se incluya la variedad de modelos familiares (...). (López, Díaz, Morgado eta Gonzalez, 2008, 114-115 or.)

Ageriko gizarte aldaketa eta familia-eredu berrien sorrerarekin batera, eskola aldaketa hauei egokitzeko gai izan behar da. Haur guztiek (txikiak direnean, senideek edo tutoreek) edozein hezkuntza zentro aukeratu dezakete eta onartuak izan, bere jatorria eta egoera sozialarengatik baztertu gabe. Hots, haur bati bi ama izateagatik edo adoptatua izateagatik, ezin zaio eskolaratzea ukatu. Baina behin eskola barnean, **haurren familien arteko aniztasuna lantzen al da?** Gure ustez, ez da lantzen, edo kasurik onenetan gutxi lantzen da, ikas-materialik ez dagoelako eta dagoena ez delako ezagutzen. Are larriagoa da egoera, kontuan hartzen badugu, Haur Hezkuntzan ohikoak eta ugariak direla familiarekin erlazionatutako eduki eta jarduerak, haurrari segurtasuna ematen baitiote hasieran gune arrotza den eskolan.

2. Helburuak

Aurreko atalean aipatu lez, gure ikerketako galdera honako hau izan da: haurren familien arteko aniztasuna lantzen al da? Galdera hau mugarriztat hartuz, Euskal Herriko hezkuntza-zentroetan Haur Hezkuntzarako gehien erabiltzen den Urtxintxa¹ argitaletxeko ikasmaterialen irudiak aztertu eta familia-ereduei eta gizon eta emakumeei zer nolako rola ezartzen zaien ikusiko da. Ikasmaterialek eskaintzen duten familia-eredu eta rol banaketa errepikakor horren osagarri gisa, familia-aniztasunaren gaia lantzeko hainbat materialen gida egingo da.

Gida hori osatzen laguntzeko, Euskal Herriko izaera ezberdinetako familietako kideekin harremana duten hainbat elkarterekin harremanetan jarri eta baliatzen duten materiala gidan sartuko da. Hona hemen familia-eredu

¹ Ikastolen Elkarte (2016). *Urtxintxa*. <https://www.urtxintxa.net/>.

desberdinekin lanean jarduten duten elkarteak: Agipase (Gipuzkoako guraso bananduen elkartea), Beroa (Gipuzkoako harrera familien elkartea), Naizen (Euskal Herriko haur transexualen elkartea), Gehitu (Euskal Herriko gay, lesbiana, transexual eta bisexualen elkartea), Gizakien Lurra (osasan-arazoak dituzten haurrak Euskal Herrira harrera familia batean sendatzera ekartzen dituen elkartea), Kale dor Kayiko (Euskal ijitoen elkartea), Chernobylen lagunak (Chernobyletik oporraldietan haurren erradioaktibitate maila jaisteko harrera familien elkartea) eta Ume Alaia (adopzio familien euskal elkartea).

Gida honen helburua argia da, aniztasunetik abiatuz, haurrak tolerantzian eta modu inklusiboan heztea. Haurrek egunero ehundaka iragarki ikusten dituzte, telebistan, banketxeetako kristaletan, autobus geltokietan, Youtubeko bideoetan, eraikin handietan eta abar. Ikus kultura heteropatriarkala eta matxista jasotzen dute egunero, honek ondorio batzuk dakartzalarik: emakumeek gizonaren menpe egon behar dutela sentitzea, familia heterosexuala soilik izan daitezkeela sinestea, nuklearrak ez diren beste familiak lekuz kanpo sentitzea eta fobiak sortzea (homofobia edo arrakazeria, adibidez), besteak beste. Haurrek txikiak direnean ez dute bazterkeriarik ezagutzen, handitzen doazen heinean, ingurutik jasotzen dituzten zuzeneko zein zeharkako mezuek eragiten dute haurrek baztertzeko joera hartzea. Hortaz, txikitatik ezberdina dena maitatzen eta errespetatzen irakatsiz gero, eskola inklusiboa lortzeaz gain, gizarte inklusiboa izango litzatekeenaren hastapenetan egongo ginateke. Familia bat osatzeko modu asko daudela eta denak onargarriak, bakoitzak berea izan arren, besteenak bestelakoak izan daitezkeela, alegia.

3. Metodologia

Arestian aipatu bezala, Euskal Herriko hezkuntza zentroetan erabili den Urtxintxa argitaletxeko ikasmaterialaren azterketa egingo da. 1998an, Elkar argitaletxeak eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak elkarlanean sortu zuten Urtxintxa proiektua, hiru ezaugarri nagusi hauek dituena:

- a) Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua
 - Gaitasunen garapenean oinarritua.

- Ikaskuntza esanguratsua eta ikasle aktiboaren bila. Haurraren bizipenean, esperientzian eta jolasen testuinguruan txertatutako ikas-prozesua.
- Aniztasuna errespetatzen duena.
- Balioen eta jarrerren hezkuntzarekin konprometitua.

b) Euskal Herri osorako egina

- Jatorriz euskaldun nahiz erdaldun diren haurrak euskaraz eta curriculum bateratuan hezteko proposamena.
- Curriculumaren euskal dimentsioari garrantzia ematen diona.
- Herrialde guztietako erreferentziak jaso eta euskalkien presentzia ziurtatuko duena.
- Euskalduntasunetik abiatuz, kultura unibertsalerako bidea egingo duena.

c) Diseinu bateratua eta eraginkorra

- Derrigorrezko Hezkuntzarako curriculum deskribapen bateratua.
- Hezkuntzaren asmoen esplizitatzaila. (Ikastolen Elkartea, 2015-16)

Hasiera batean, ikerketa egiteko hainbat argitaletxerako 4 urteko umeentzako liburuxkak aztertzea izan zen asmoa eta 2019ko urtarrilean, Bilboko Hezkuntza Fakultateko liburuen laborategira joatea erabaki genuen, material hori guztia eskuragarri baitzegoen. Baina materialok erabilera pribatukoak izanik, liburutegi zentralera jo behar izan genuen. Practicum III urtarrileko azken astetik maiatzaren lehen astera izanik, eta horrez gain egin beharreko bestelako lanak kontuan hartuta, liburutegira joateko apirilaren, 15eko astea geratu zitzaigun. Nahiz eta online katalogoan Urtxintxako 3, 4 eta 5 urteko ikasleen karpetak zeudela jarri, 3 eta 5 urtekoenak osatu gabe zeuden, bakoitzean hiruhilabete oso bateko liburuxkak falta zirelarik. Aipatzekoa da, Urtxintxa argitaletxeko aurreko edizioeko liburuxkak bazeudela, 1998.urtekoak, baina horiek gaur egun erabiltzen ez direnez, ez ziren ikerketarako baliagarriak. Era berean, ez zegoen beste argitaletxe batzuetako material askorik ere eta bertan zeudenetako asko edizio zaharrak ziren. Hortaz, Urtxintxa argitaletxeko 4 urteko 10 liburuxkak aztertzea erabaki zen.

Ondoren, familia aniztasunaren agerpen eza eta gizon eta emakumeei ezarritako rol ezberdin eta zehatzen errepikapena jasotzeko, taulak sortu genituen (ikus [1. eranskina](#)). Taulok, Miralles, Delgado, eta Caballeroren (2008)

Análisis del concepto de familia en las imágenes de los libros de texto de Educación Infantil artikuluan eta Gomezen (2015) *Elementos metodológicos para el análisis de imágenes* liburuan oinarrituta sortu ziren. Lehenik eta behin, marrazkiak eta argazkiak banatzea erabaki genuen, irudi kopuru osoa nondik zetorren jakiteko. Jarraian, familia-ereduak zerrendatu genituen, sailkapena egiteko. Ondoren, zailtasun handieneko atala sortu genuen, ekintzak taldekatzea, alegia. Azkenik, arropari eta ilearen luzerari dagokion taula sortu genuen, oztopo gutxien izan genuena. Ekintzak taldekatzea zailena izan zen, irudietako pertsonaiek orotariko ekintzak egiten zituztelako eta horiek multzokatu beharra zegoelako, taula luzeegi gera ez zedin. Behin taulak sortuta, behaketa sakona egin eta ezarritako irudi, familia, pertsona, ekintza eta arropa kopurua banaka zenbatu genituen bi asteko epean.

Lehenengo taulan irudien formatua zehaztu eta irudietako familia-ereduak sailkatzen dira. Bigarrenean, banakako pertsonen rolak eta azkenik, hirugarrenean itxura fisikoa.

Bestalde, gida egiterako orduan, aurretik aipatutako familia eredu guztiei buruzko materialen bilaketa egitea erabaki zen, familia-nuklearrarena izan ezik, material guztietan agertzen baita, salbuespenak salbuespen. Hasteko, jada ezagunak genituen materialak bildu genituen (Katxiporreta² kooperatibaren azken ipuin bilduma, adibidez) eta gero, Google-n euskaraz, gazteleraz zein ingelesez “familia-ereduak ipuinak”, “adopzioari buruzko ipuinak” eta antzeko bilaketak egiten hasi ginen. Gazteleraz egindako bilaketa gehienek ³Berkana online liburudendara eramaten gintuzten, Madrilgo liburudenda baten web orrialdera, hain zuzen ere. Berkanak, gay eta lesbianen liburudenda da, homosexualitatea eta bestelako gaiekin lotutako liburu sorta handia eskaintzen duena eta material aproposak aurkitzea erraztu ziguna. Aurretik aipatutako Bizipoza⁴ Kultur Elkarteke elkarrekin (Agipase, Beroa, Chernobylen lagunak, Gizakien Lurra, Kale dor Kayiko, Naizen, Ume Alaia eta Gehitu) harremanetan

² Katxiporreta Kooperatiba (data barik). *Pirritx, Porrotx eta Mari Motots*. Lasarte-Oria. <https://www.katxiporreta.eus/>

³ Berkana librería (data barik). *Berkana Librería* Madril. <https://www.libreriaberkana.com/>

⁴ Bizipoza Kultur Elkartea (2019). *Bizipoza*. Andoain. <http://www.bizipoza.eus/>

jarriz eta haien web orrialdeak kontsultatuz, beste hainbat material eskuratu genituen. Bilaketa lanak martxoan hasi eta maiatzaren hasieran bukatu ziren.

4. Haur Hezkuntzako ikasmaterialen familia-eredu eta genero-rolen azterketaren emaitza

Atal honetan, Urtxintxako 4 urteko 10 liburuxketan aztertutako irudi, argazki eta bertako pertsonen ekintza eta itxura fisikoaren emaitzen bilketa ageri da.

4.1 Irudi/argazki eta bertako familia-ereduak


Liburuxka bakoitzak batz bestea 14 orrialde dituela kontuan hartuta, irudi kopuru handia dagoela esan daiteke. 132 irudietatik 3 soilik dira argazkiak, eta



132 horietatik 10 artelanak dira. Irudi guztietatik 19k baino ez dute familiarekin zeharkako harremana, hau da, jardueraren gakoa familia hori aztertzean dagoela. Bestalde, ez dago familia gai bezala lantzen duen liburuxkarik, bestelako gaiak lantzen dira (gabonak, oporrak, lanbideak...) eta horietan familien

1.irudia: ezkerreko kasuan argi dago denak familia bera direla, eskumako kasuan ezin da zehaztu amonarekin bizi den edo gurasorik duen. Iturria: Urtxintxa.

Irudietako familia kopurua



1.grafikoa: Irudietako familia kopurua.

irudiak ageri dira, gehien bat azalean. Guztira 23 “familia” daudela esan daiteke, haatik, esan beharra dago kasu batzuetan ez dela argi geratzen familia diren edo hurrekin dagoen heldu bat edo batzuk diren (ikus 1.irudia). Halakoetan “definitu ezin diren” familia bezala zenbatu dira eta 5 kasu antzeman dira guztira. Defini daitezkenetatik 9 nuklearrak, 3 ama bakarrekoak eta 6 aita bakarrekoak aurkitu dira, 1.grafikoan argiago ikus daitezke:

Aztertutako familia guztietatik, bat baino ez da azal ez-zurikoa eta txiro eta baliabiderik gabeko bakarra, azal beltza duen familia baten argazkiko kideak, arropa urratuarekin eta etxola batean bizitzen irudikatzen dira. Liburu guztietan agertzen den beste pertsona beltz bakarra ere, familiarik gabe agertu arren, biluzik eta lastozko etxe batean ageri da (ikus 2.irudia). Datu guzti hauek 1.eranskinetan eskuratu daitezke, *liburuxketako familia-kopurua, -eredua eta -aniztasuna* taulan.

4.2 Sexu eta adinaren arabeko ekintzak eta maiztasuna

Liburuxketako pertsonen ekintza guztiak 11 eremutan bildu dira 1.eranskineko 3.

taulan: *liburuxketako pertsonaia kopurua eta ekintzen maiztasuna*, eremu bakoitzean adin eta sexu jakin bateko kolektibo bat nagusitzen delarik. Adinaren eta sexuaren arabera, pertsonak ama, aita, semea, alaba, aitona eta amona gisa sailkatu dira eta guztira 67 ama, 100 aita, 149



2.irudia: liburuxketan agertzen diren pertsona ez-zuri guztiak txiroak dira. Iturria: Urtxintxa.

seme, 130 alaba, 16 aitona eta 15 amona aurki daitezke, 2.grafikoan ikus daitekeen bezala.

Atal honetan garrantzi handia eman diogu ekintzen maiztasunari eta proportzionaltasunari. Oinez edo paseatzen ageri direnen artean, semeak gailentzen dira, alabek eta aitek jarraituta, gero amak, aitonak eta azkenik amonak. Proportzionalki oinez zein paseoan gehien ageri direnak aitonak dira, 16tik 3, hain zuzen ere.

Alabak dira erosketak egiten maiztasun handienarekin ageri direnak, jarraian semeak, gero aitak, ondoren amak eta amonak eta azkenik aitona. Ehunekoei erreparatuz gero, amonak dira erosketa gehien egiten dutenak, 15etik 3.

Kalean, eskolan edota etxean hurrekin egoten, bai maiztasunetan bai proportzioan amak dira gailentzen direnak, % 9, maiztasunean atzetik aitak dituzte eta aitona eta amonak berdinketan amaieran. Aipatu beharra dago eremu honetan ez direla haurrak kontuan hartu, haurrak beti agertzen baitira beste haur batzuekin.



2.grafikoa: sexu eta adinaren araberako pertsona kopurua. Iturria: Urtxintxa.

Etxeko lanak egiten, harrikoa, garbiketa, janaria prestatzea eta abar, amonak nagusi dira maiztasunean zein proportzioan, % 26. Ondoren amak eta azkenik aitak, semeak eta alabak parekatuta. Nabarmentzekoa da aitonek ez dutela jarduera hauetan inongo agerpenik.

Aitek aurrea hartzen dute lan egiten ageri diren irudien maiztasun eta proportzioan, 100etik 49, hain zuzen ere. Maiztasunari dagokionez, amak, aitona eta amonak jarraian daude, handitik txikira hurrenez hurren. Proportzionaltasunari dagokionez, ordea, aiten atzetik aitona daude, gero amak eta azkenik, amonak.

Jolasean eta kirola egiten, kopuruak eta ehunekoak bat datoz. Lehenak semeak dira % 25arekin, bigarrenak alabak, ondoren amak eta azkenik aitak, 100etik 4 direlarik. Atal honetan, ez da ez amonarik ezta aitona ere ageri.

Irakurtzen eta idazten, semeak eta alabak 18na bider agertzen dira, alabak proportzionalki gehiago diren arren. Atzetik, kopuruan eta ehunekoetan

berdinduta aitak eta amak daude, hurrenez hurren. Atal honetan ere, aitona-amonak ez dira ageri.

Jaten, atsedean hartzen, abesten, dantzatzen, telebista ikusten, oro har, aisialdiko jardueretan semeak buru dira maiztasunean eta aitonaak proportzioan, 16tik 4. Semeen atzetik, alabak dira gehiagotan agertzen direnak eta jarraian aitak, amak, aitona eta amonak.

Bihurrikeriak egiten edota gaiztoa zein zikina den ekintza bat egiten, semeak 32 (% 21) aldiz ageri dira, alabak, ordea, 11 (% 8). Gainerako adin eta sexu-etako partehartzaileak ez dira arlo honetan ageri.

Azkenik, zintzotasunez edo prestutasunez jokatzeko edo ekintza on bat egiten, proportzioan eta maiztasunean sailkapen bera egiten da. Alabak aurrena, % 17arekin 23 bider ageri direlarik, ondoren semeak (% 12) 19 bider eta azkenik aitak, behin (% 1). Amak, amonak eta aitona ez dira ekintza hauek egiten agertzen. Ekintza bakoitzaren eta sexu/adinaren araberrako datuak, 1.eranskinen 3, 4, 5, 6, 7 eta 8.grafikoetan aurki daitezke.

Bestalde, arropari dagokionez ez da zenbatutako pertsonen % 100a kontuan hartzen, kasu batzuetan irudia gerritik gorakoa delako eta halakoetan, ez dago jakiterik prakak edo gona jantzita dituen. Hasteko arroparen emaitzak aztertuko dira eta ondoren, ilearen luzerari dagozkionak.

67 amatatik, 18k soinekoa edo gona zein amantala daramate, 30ek prakak eta 3k bainujantzia edo mozorroren bat. 100 aitetatik 5ek baino ez daramate amantala (lanerako buzoa eta antzekoak), gona edo soinekoa daramanik ez baita ageri. % 72ak prakak daramatza eta 8k bainujantzia edo mozorroa. Semeen % 9ak amantala darama, aiten kasuan bezala gona edo soinekorik ez daramatelako. Gehiengoak, 149tik 96k edo % 62ak, prakak daramatza eta gainerako %16ak bainujantzia edo mozorroa % 10. Ia alaben erdia, % 49ak hain zuzen ere, soinekoarekin, gonarekin edo amantalarekin ageri da, % 21a prakekin eta %9a bainujantzi edo



3.irudia: gizonezkoak prakekin (%62) eta emakumezkoak (%49) soinekoa/gona/amantalarekin irudikatzen dira. Iturria: Urtxintxa.

mozorroarekin (ikus 3.irudia). Aiton-amonak dira, arropari dagokionez homogeneoenak, aitonen % 4k eta amonen % 86, gona, soinekoa edo amantalarekin ageri dira. Aurretik semeekin eta aitekin gertatu den bezala, aitonen ehuneko hori laneko buzoarekin ageri da, amonak hiru arrokekin ageri direlarik. Prakak aitonen % 68k jazen dituzten arren, amonen % 1ak bakarrik eta azkenik, bainujantzi eta mozorroen kasuan, amonak ez dira bainujantzitan edo mozorrotuta ageri eta aitonak, bakarra baino ez.

Orrazkera aztertuz gero, emaitzak argiak dira, emakumeak ile luzearekin eta gizonak ile laburrekin irudikatzen dira. Ile luzearekin, amen % 94a, alaben % 99a eta amonen % 100a ageri dira. Ile laburrekin, aiten % 95a, semeen % 98a eta aitonen % 100a. Arlo honetan ere, homogeneotasun handiena adinekoen artean ematen da. Arropa eta orrazkerari buruzko datuak 1.eranskineko 4.taulan (*liburuxketako pertsonaien itxura fisikoaren sailkapen taula*) eta 20.grafikoan (*liburuxketako pertsonaien itxura fisikoaren sailkapen grafikoa*) aurki daitezke.

4.3 Azterketaren ondorio nagusiak

Ikerketa honen bitartez, Urtxintxa argialetxeak, Euskal Herriko hezkuntza



4.irudia: emakumea harrakoa egiten eta gizona aldizkaria irakurtzen. Iturria: Urtxintxa.

zentroetan erabiliena izanik, familia-eredu desberdinen eta emakume eta gizonezkoen rol ezberdinen agerpena aztertu nahi izan da. Lehenik eta behin, ekintzen eta itxura fisikoaren behaketa taulek emandako emaitzak ikusita, argi dago emakumearen rolak, haurra denetik adinekoa den arte, zintzotasunean, erosketak egitean, hurrekin egotean eta soinekoa eta ile luzea eramatean datzala. Etxeko lanetan

emakumeak nagusi dira eta atsedean hartzean eta aisialdiko jardueretan, ordea, gizonak, 4.irudian adibide argi bat ikus daiteke. Era berean, haurrak mutilak diren kasuetan bihurrikeriak egiten irudikatzen dira eta neskatilak, zintzo portatzen. Lanbideak lantzen diren liburuxkan salbu, emakumeak erosketak egiten, andereño lanetan edota haurren zaintzan ari dira, liburuxka horretan suhiltzaile edo mekanikari agertzen badira ere, irudi urriez ari gara.

Egoera kezkarri honek, euskal neska-mutilei ikasmaterialen bidez ematen zaien eredu enpresa txikia baino ez da, ipuin tradizionalak (Haur Hezkuntzan ohikoenak direnak) ez baitute egoera hobetzen. Mutilak hurrengo eredu enprean jartzen ari gara: indartsua, ausarta, heterossexuala, ile laburra eta/edo ez orraztua, soineko edo gonarik ez daramana eta bihurrikeriak zein gaiztakeriak egiten dituen. Haatik, mutilak jarrera dominante hori duten bitartean, neskek bestelako apaltasun eredu enprean jartzen dira: zintotasuna, ongia egin beharra, etxeko lanen zein erosketen arduraduna, ile luzea eta soinekoa edo gona, ondo orraztua eta pinpirina. Hurrez gain, orokorrean gizon eta emakumeen artean ere desberdintasunak nabarmenak dira, hiru adin tartetan gizonak dira nagusi, lan gehiago egiten dute eta atsedeen gehiago hartu.



5.irudia: aita bakarrekoko familia. Iturria: Urtxintxa

Familiei dagokienez, egoera larri baten aurrean gaudela esan genezake, haurrak etengabe jasotzen ari diren eredu errepikakor, matxista eta errealitatek urruna dela eta. Lehenik eta behin, familia gai bezala ez da inon lantzen eta jakina da 0-6 adin tartean funtsezkoa da familiaren papera, batez ere haurrak egokitzapen aldiaren ondoren eta ikasturte hasieran. Bestalde, irudietan ageri diren familietatik, guztira 23, 9 nuklearrak dira, 3 kasutan

haurrak amarekin bakarrik

agertzen dira eta 6 kasutan, aitarekin bakarrik (ikus 5.irudia), halakoetan ama eta aita bakarrekoko familiak direla egintzat jo da. 5 familia sailkatu gabe geratu dira, ez baitago argi bere senideak zeintzuk diren. Azpimarragarria bada ere, azal zurikoa ez den familia bakarra txiro eta tribal bezala irudikatzen



6.irudia: "Nire gurasoen lanbideak" jardura. Iturria: Urtxintxa.

delak, gainerako beste irudi guztietan pertsona zuriak nagusi direlarik. Liburuxken azaletan jende andana ageri denean, azal beltzeko pertsona gutxi ageri dira, sekula ez liburuxka barneko jardueretan. Horrez gain, arestian aipatutako lanbideen liburuxkan 6.irudian ikus daiteken jarduera ageri da, non hurrei aita eta amaren lanbideak zehaztea eskatzen zaien. Kontuan hartu gabe noski, haur batzuek bi aita, bi ama, bina aita eta ama edota aita edo ama bakarria izan ditzaketela.

Ondorioz, haurrek ez dute familia aniztasunaren eredurik jasotzen eta neska edo mutilen rola eta itxura fisikoa zehatzak eta matxistak dira. Honek irudi hauen *curriculum ezkutua* agerian uzten du, hau da, Acaso eta Nuerek (2005) dioten bezala “el conjunto de contenidos que se transmiten de forma implícita en un contexto educativo (...) el principal objetivo del currículum oculto es perpetuar de forma implícita un conjunto de conocimientos que no resultaría correcto tratar de forma explícita a través del discurso educativo” (208.orr). Hortaz, hurrei irudien bidez emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak landu nahi dira, rolen banaketa desorekatua eta sexista, gizonen indarra eta boterea eta emakumearen hauskortasuna eta jaramon egin beharra, besteak beste. Egoera honi aurre egiteko asmoz, bi proposamen egin daitezke: lehenengoa argitaletxeek eta kasuon, Urtxintxa argitaletxeak bere ikasmaterialek eskaintzen duten ereduak birplanteatzea izango litzateke. Genero rol eta aniztasunari dagokionez behintzat, ez dituelako gaur egungo euskal gizartearen beharrak asetzen eta ez delako errealitatea jasotzen. Bigarren aukera, nik neuk arazo honi konponbidea emateko asmoz garatutakoa: material osagarri osatutako gida bat, ikasliburuek eskaintzen ez duten aniztasuna lantzea helburu duena (ikus 2.eranskina: familia-ereduen lanketarako materialen gida).

4.4 Haur Hezkuntzan familia-aniztasuna lantzeko gida

Familia-ereduen lanketarako gidan, familia-ereduak lantzen dituzten 86 material ezberdin aurki daitezke euskaraz, gaztelera zein ingelesez. Ipuinak nagusi diren arren, bideoak, jolasak, bideo-jolasak eta web-orrialdeak aurki daitezke, genero rolen banaketa egokia eta arrazakeriarik gabeko irudiak agertzen dituztenak. Materialak zenbait ataletan banatu dira, aurkitzea errazagoa izan dadin: familia ereduak orokorrean, familia homosexualak, guraso

bananduen familiak, kultura anitzetako familiak, harrera familiak, haur transexualen familiak, adopzio familiak eta guraso bakarreko familiak. Familia ereduak orokorrean atalean, eredu askoren aurkezpena egiten den materiala dago eta kultura anitzetako familietan, protagonistak azal zurikoak ez diren familiak protagonista dira, gainerakoetan aipatutako familia ereduak lantzen duten materialak aurki daitezke. Atal batzuetan, beste batzuetan baino material nabarmen gehiago dago, esaterako, familia homosexualek material ugari dute eta kultura anitzetako familiek, 2 baino ez. Materialen bilketa egiteko, Berkana online liburutegia, Elkar liburudenda, Katxiporreta Kooperatiba, Bizipoza Kultur Elkarte eta Beroa, Ume Alaia, Naizen, Gehitu, Agipase, Chernobylen lagunak, Gizakien Lurra eta Kale dor Kayiko elkarten web orrialdeak kontsultatu dira. Behin materialak aurkitu eta aukeratuta, bakoitzari dagokion fitxa bat bete da izenburua, egilea, ilustratzailea, argitaletxea, argitalpen data, hizkuntza, formatua, euskarri materiala, gaia eta oharrak betez. Oharrak atalean, materialari dagokion informazio gehigarria erantsi da, bigarren azpigai bat lantzen dela edo Youtuben bideo eran eskuragarri dagoela, kasu.

Gida honen helburuetako bat eskola, ikastola eta ikastetxeetan banatua izatea da, familia-aniztasunaren lanketa bermatzeko eta irakasleei materialen eskuragarritasuna errazteko. Material guztiak sarean aurkitu ditugunez, gida formatu digitalean ere sortu da Flip PDF aplikazioaren bidez. QR kode bidez zein esteka bidez aurki daiteke.

5. Ondorioak

Ikerketa honen bitartez, eskolaren erronka den familia-aniztasunari eskolan ematen zaion lanketa aztertu nahi izan da. Horretarako, familia-eredu desberdinek Urtxintxa argitaletxeko ikasmaterialen irudietan duten agerpena eta gizonezkoengan eta emakumezkoengan ematen den rol banaketa aztertu dira. Xedea hau izanik, argi geratu da familia-eredu ezberdinen agerpen oso urria eta gizon eta emakumeen artean (haurtzaroan, helduaroan eta zahartzaroan) ematen den rol banaketa desorekatua eta matxista. Familiak Haur Hezkuntzan duen garrantzia kontuan hartuta, azpimarratzekoa da familia liburuetan landutako gaien artean ez agertzea eta irudietan familia nuklearrak nagusi izatea. Eskola

inklusiborako bidean, non gizartea osatzen duten pertsona orok eskolan parte har dezakeen, aztertutako arloan bederen eginbehar handia dagoela argi geratu da. Familia nuklearra osatzen duten azal zuriko haurrak baino ez baitaitezke irudietan identifikatuta sentitu. Era berean, azal zurikoak ez diren hurrek haien burua pobreziarekin eta tribaltasunarekin lotu dezakete, nahiz eta Euskal Herrian jaio izan.

Kontuan hartuta Urtxintxa Euskal Herriko hezkuntza zentroetan erabiltzen den argitaletxerik ohikoena dela, kezkarria da pentsatzea zenbat hurrek landu duten, lantzen duten eta landuko duten materiala izatea. Harritzekoa da, Elkar-en proiektu honen ardatz nagusietako bi, aniztasuna errespetatzea eta balioen eta jarrerren hezkuntzarekin konpromisoa izatea, lehenik eta behin aniztasuna errespetatu ez ezik, lantzen ez duelako eta bigarrenik, balioak eta jarrerak erabat matxistak direlako. Behar-beharrezkoa da irudiak aldatzea eta parekideak eta anitzak diren beste batzuegatik ordezkatzeko, kasu honetan Urtxintxaren azterketa baino ez da egin, baina komenigarria litzateke argitaletxe guztiek hausnarketa jarduera bera egitea: gizon eta emakumeen artean rol banaketa matxista ageri da? Haurrak neska ala mutila diren soineko eta prakak daramatzaten arabera sailkatzen ditugu? Kultura eta azal kolore desberdinetako jendea ageri da? Eta ageri badira, tribuetan edo egoera probrean irudikatuta? Familia gai garrantzitsua da, lantzen al da? Familia-eredu desberdinak ageri dira?

Eskolak, gizartearen isla izan behar du eta horretarako, gizartearen gertatzen dena islatzeaz gain, irakasle bakoitzak bere gelako beharrei erantzuten jakin behar du. Kasu batzuetan, lantzen ari garen honetan bezala, ikasmaterialak lagun ez baditu, bestelako materialak bilatu beharko ditu eta lanketa egin. "Familia-ereduen lanketarako gida" helburu horrekin sortu dugu, hezkuntza-zentroetan zabaldu eta irakasle bakoitzak bere gelako familien lanketa aproposa egin dezan. Esan beharrik ez dago, gerta daitekela (nahiz eta ohikoena ez izan) gela bateko familia guztiak nuklearrak izatea, halakoetan ere, familia-aniztasuna lantzeak berebiziko garrantzia dauka, hurrek ikus eta ikas dezaten familia bat osatzeko modu asko daudela eta denak onargarriak direla. Hori litzateke eskola inklusiboa, gelako errealitatea onartu eta lantzeaz gain, bestelakoekin ere halaxe egiten duena.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Acaso, M eta Nuere, S (2005). *El curriculum oculto visual: aprendera obedecer a través de la imagen*. Arte, Individuo y Sociedad, (17) 2017-220 orr. <https://www.redalyc.org/pdf/5135/513551273010.pdf> -tik berreskuratua.
- Aguado, L. (2010). Familia-ereduak gaurko eskolan. *Tantak* 22 (1), 127-148 orr.
- Aguado, L. (data barik). Escuela inclusiva y diversidad de modelos familiares. *Revista Iberoamericana de Educación / Revista Ibero-americana de Educação*, 1-11 orr.
- Berkana librería (data barik). *Berkana Librería* Madril. <https://www.libreriaberkana.com/> .
- Bizipoza Kultur Elkarte (2019). *Bizipoza*. Andoain. <http://www.bizipoza.eus/> .
- Billard, J. (2002). Escuela y Sociedad. *Revista de Teoría y Didáctica de las Ciencias Sociales*, 7, 167-186 orr.
- Brea, U (2008). Ikas Komunitatea: Mundua ikastetxera. *Argia aldizkaria*. <https://www.argia.eus/astekaria/docs/2137/pdf/p16-19.pdf> -tik berreskuratua.
- Capano, A., Masonnier, N. eta Gonzalez Tornaria, M. L. (2016). *Propósitos y Representaciones* 2 (4), 15-71 orr.
- Castiella J. J. (2008). *Modelos de familia*. Iruñea, Espainia: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Navarra. 2014, 1-7 orr. https://www.foessa2014.es/informe/uploaded/documentos_trabajo/131120_14045006_7884.pdf -tik berreskuratua
- Castro, T., Seiz, M eta Instituto de Economía, Geografía y Demografía (2014). La transformación de las familias en España desde una perspectiva socio-demográfica: *Informe sobre exclusion y desarrollo social en España* Centro de Documentacion y Estudios. *Diversidad familiar y cuestiones conceptuales*, 8-15 orr.
- Elkar Argitaletxea (2019). *Urtxintxa proiektua*. Donostia. https://www.elkarargitaletxea.eus/ikasmateriala/default.cfm?hizkuntza=1&atala=hezkuntza_etapak&hezkuntza_etapa=Haur%20Hezkuntza .
- Escobar, L. O. (2011). Acerca de los nuevos retos de la escuela en el siglo XXI. *Katharsis* 11, 91-106 orr.
- Eustat (2018). *Familias por tipo y estado civil legal de la persona de referencia (en miles)*. 2016. http://www.eustat.eus/elementos/ele0004400/Familias_por_tipo_y_estado_civil_legal_de_la_persona_de_referencia_en_miles/tbl0004448_c.html -tik berreskuratua.
- García Lopez, A. (data barik). Retos para la escuela del nuevo milenio (tesia). Huelvako Unibertsitatea, Huelva.
- García Montes M. E. eta Ruiz Juan, F. (2002). *Retos de la escuela del siglo XXI ante la sociedad postmoderna del ocio y el tiempo libre. Educar para mejorar la calidad de vida* 1, 6-8 orr.
- Gomez Mundo, A. (data barik). *Elementos metodológicos para el análisis de imágenes*, 346-354 orr.
- Gonzalez, M. eta Jauregi, I. (2014). Familia-ereduak: bikotean, bakarka, umeein edo gabe. *Argia aldizkaria*. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/1944/familia-ereduak-bikotean-bakarka-umeein-edo-gabe> -tik berreskuratua.

- Hik Hasi (2010). Familia eta eskola. Bi instituzio konplexu. *Hik Hasi Euskal Heziketarako Egitasmoa*.
<http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20100103/familia-eta-eskola-bi-instituzio-konplexu> -tik berreskuratua.
- Ikastolen Elkartea (2016). *Urtxintxa*. <https://www.urtxintxa.net/>.
- Katxiporreta Kooperatiba (data barik). *Pirritx, Porrotx eta Mari Motots*. Lasarte-Oria. <https://www.katxiporreta.eus/> .
- Lopez, F., Diez, M., Morgado, B. eta Gonzalez, M. M. (2008). Educacion infantil y diversidad familiar. *XXI Revista de Educacion* 10, 111-122 orr.
- Marina, P., Delgado, C. eta Caballero, M. R. (2008). Análisis del concepto de familia en las imágenes de los libros de texto de educación infantil. *Enseñanza de las Ciencias Sociales* 7, 89-98 orr.
- Oudhof, H., Mercado, A. eta Robles, E. (2018). Cultura, diversidad familiar y su efecto en la crianza de los hijos. *Estudios sobre las Culturas Contemporaneas* 48, 65-84 orr.
- Pastor, C.A., San Juan de Dios ospitaleko Batzorde Pedagogikoa eta Rodriguez J.A. (2007). *Educacion Inclusiva*.
<http://www.ite.educacion.es/formacion/materiales/72/cd/index.htm> -tik berreskuratua.
- Rodrigo M. J eta Palacios, J. (2001). *Familia eta giza garapena*. Bilbo, Espainia: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Saint-Jacques, M.C. (2008). La diversidad de trayectorias de recomposicion familiar. *Revista de Antropologia Social* 2009 (18), 187-219 orr.
- Sevilla, J. L. (2009). *Modelos de Familia* 9, 10-24 orr.
- Suarez, G. A. (2007). *Sociedad: de vuelta a la escuela* (1) 2, 243-251 orr.
- Torio, S. (2004). *Familia, Escuela y Sociedad* 83, 35-52 orr.
- Vercellino, S. (2017). *Representaciones de la monoparentalidad y la diversidad familiar en el ámbito educativo* (14) 2, 1-11 orr.